

Irailak 15, barikua

Olatz Saitua. Sopranoa Eugenio Tobalina. Gitarra



Olatz Saitua, sopranoa

Bilbon jaioa, bertako Musika kontserbatorioan ikasi zituen Gitarra eta Kantua.

Txikitatik abesbatzetan ibili ondoren, Unibertsitatean Enpresa ikasketak egin eta gero, ahots formakuntza atzerrian zabaldu zuen: Salzburgoko Mozarteumean Opera gradua egin zuen Wilma Lippekin eta Bussetoko Accademia Verdianan eta Sienako Accademia Chigianan Carlo Bergonzirekin. Ileana Cotrubasekin ere lanean ibili zen Bilbon eta Vienan.

Debuta Italian egin ondoren (Musetta/Viareggio eta Cosenza, Rosina/Siena, Bastienne/Firenze) Salzburgoko Landertheaterean aritu zen 3 denboralditan eta beste 9 Esse-neko Aalto Theaterean. Bertan Gilda, Rosina, Oscar, Olympia, Adele, Gretel, Marzelline, Tytania, Musetta, Susanna, Blonde, Despina, Papagena, Mme Silberklang, Soeur Constance, Frasquita interpretatu zituen besteak beste. Madrileko Teatro Realen, Oviedoko Teatro Campoamorren, Donostiako Hamabostaldian, La Coruñan, Valladoliden, Córdoba, Tenerifen aritzeaz gain Bartzelonako Teatro del Liceun hainbat rol bete ditu: Susanna, Zerlina, Papagena, Barbarina, Amore /Gluck eta Monteverdi, Princesse, Tebaldo, Trujaman, Crobyle eta Yniold.

Hainbat zuzendari ospetsuren eskutan egin du lan eta errepertorio sinfoniko ugari jorratu du ganbera kontzertuak pianoarekin eta gitarrarekin egiteaz gain: Exsultate Jubilate, Carmina Burana, Requiem Brahms, Mozart, Fauré, Bachen 51. kantata.

Eugenio Tobalina, gitarra

Bilboko J.C. Arriaga musika kontserbatorioan ikasi zuen eta gerora David Russell eta Leo Brower maisuekin izandako kontaktuak guztiz erabakiorrak izan dira bere formakuntza osotu eta horren osteko ibilbide profesionala bideratzeko.

Hainbat lanetan murgiltzen denetariko musikaria da. Musika garaikidea eta hain jorratuta ez dauden errepertorioak gustuko ditu, besteak beste errezitalak bakarka eskainiz, ganbara taldeetan, ahotsarekin, gitarra eta orkestrarako kontzertuak, gitarra musika elektronikoarekin... Hainbat piezaren lehenengo entzunaldiak eskaini ditu, ahaztutako zeuden piezak gaur egunera ekarriz edo berari dedikatuak dauden pieza berriak aurkeztuz.

Lan diskografikoen artean *Urrundik* (SR, 2010) – Euskal Herriko konpositoreek gitarra eta ahotserako idatzitako kanten antologia – *Herrimina* (TMC, 2008) – gitarra hutserako euskal konpositoreek idatzitako XX.mendeko lehen erdiko lanenez osatua – *Leopoldo de Urcullu Guitar Music* (Naxos, 2008) - XIX. mendeko ezezaguna den konpositore honek gitarrarako idatzitako lanen monografikoa -, eta *Hizpide* (2002) - Synaulia Trioarekin bat euskal konpositoreek flauta, biola eta gitarrarako idatzitako lanekin -.

EGITARAUA

Gau eder bat	P. Sorozabal
Penak	P. Sorozabal
Pastorcito santo	J. Rodrigo
Coplillas de Belén	J. Rodrigo
Penas de amores	L. Palomo
Linda de mi corazón	L. Palomo
Romance sefardí	L. Palomo
Asturiana	M. de Falla
El paño moruno	M. de Falla
Nana	M. de Falla
Adio ene maitia ** Gitarra bakarrik	M. A. Arbea / Herrikoia
Atzo ttun ttun	A. Donostia (*)
O ciuciarella	A. Donostia
Le bon matin	A. Donostia
Iruten ari nuzu	A. Donostia (*)
Kantari euskalduna	J.M. Iparragirre/ Santesteban (*)
Zibilak esan naute	J.M. Iparragirre/Santesteban (*)
Zugana Manuela	J.M. Iparragirre/Santesteban (*)
Hara nun diran	J.M. Iparragirre /Santesteba
Amanecer ** Gitarra bakarrik	J. Guridi / José de Azpiazu
Lurraren pian	J. Guridi (*)
Hala baita	J. Guridi (*)
Mirentxu	J. Guridi (*)
Itxaso ** Gitarra bakarrik	M. A. Arbea / Herrikoia
Bihotz bat	P. Sorozabal
Ala Kinkirrin	P. Sorozabal
Urrundik	P. Sorozabal 3:16
Bihotz bat	P. Sorozabal 3:10
Ala Kinkirrin	P. Sorozabal 2:25

(*) Gitarra arako moldaketa Eugenio Tobalinak